

Izotz hockeya ♦ Lapurtarrek hirugarren partida galdu dute erreskadan kontrario samurren aurka

Denak ahoa bete hortz

Hormadi 5-2 zen aitzinetik, eta bost minututan bost gol hartu zituen

Hormadi	Lyon
5	7

Ikusleak.- 1.095

ZATI BAKOITZEAN: 2-0, 2-2, 1-5

EPAILEA: Macron.

Hormadi.- 10 minutuko faltak. Golak: Solauxek (4'55"), Baldrisek (11' 34" eta 32'08"), Vorobelek (36'44") eta Lapinko-kik 46'45").

Lyon.- 6 minutuko faltak. Golak: Meunierrek (25' 47"), Gachetek (38'41"), Aimonettok (53'10" eta 57'45"), Berthetek (53'45") .Walhstenek (57'18") eta Ringek (58'24").

Koldo Alduntzin/ **Angelu**

LA BARREN herenegun gauean bildu ginen mila ikusleok sinetsi ezinik eta ahoa bete hortz geratu ginen Hormadiri gertatutakoarekin. Lyon mendean hartuta zeukan partida amaitzeko hamahiru minutu falta zirela (5-2), eta azkenean, 5-7 galdu zuen. «Uste dut ez duela azalpen logikorik. Behin gertatu zitzaigun Viryren kontra; Chamonixen bigarrenenez, amaitzeko 12 segundo falta zirela; eta gaur berriro gertatu zaigu; hori larria da», adierazi zigun amaieran Karlos Gordobil entrenatzaileak.

Kontua da partida amaitzeko hiru minutu eskas gertatzen ziren arte aitzinetik aritu zela Hormadi, eta galtzeko arriskurik gabe, baina Lyonek berdindu egin zuen orduan, eta hondamendia areagotzeko, hondarreko bi minutuetan bi gol sartu eta lehoiek irentsi egin zuten



KOLDO ALDUNTZIN

Slavomir Vorobel, Hormadiren gola sartzen, Denis Lyongo atezainaren aitzinean.

KARLOS GORDOBIL

■ ■ ■ *«Jokalaria ez dira jabetzen jokoan dagoenaz, eta ez dira gauza partidu amaiera arte maila berean jarraitzeko»*

Hormadi, harrokeriaz diharduen sugetzarra bailitzan.

Lehen zatian gogotsu eta erritmoz jardun zuen Hormadik, eta bi gol sartu zituen: aurrenekoa Solauxek, Elorinnek jaurtiketa eginda, eta bigarrena Baldri-

sek, Ducharmerekin oso konbinaketa ona egin ondoren. Bigarren zatiazen hastapenean Lyonek egin zuen presioa, eta Munier internazionala primeran baliatu zen Hormadi jokalaria bat gutxiago zela gola sartzeko. Angelutarrek pixkanaka presioa arindu, eta bi gol sartu zituzten sei minututan: Baldrisek eskuinetik jaurtiketa bortitzairekin eta Vorobel eslova-kiarrak atezainaren aitzinean bakarrik zela. Bi minutu-ra, berri, Gachetek ezarri zuen 4-2koa, 12 metrotik jaurtita.

Hirugarren zatian joko pausatu baina erabakigarriarekin hasi zen Hormadi. Lapinkoski finlandiarrek

sartu zuen 5-2koa, Solauxek pastilla lapurtuta. Handik aitzinera Hormadik behera egin zuen. «Jokalaria ez dira jabetzen jokoan dagoenaz, eta ez dira gai partidaren amaiera arte lan egiteko, eta hori gertatu zaie gaur», zioen Gordobilek haserre.

Sailkapena

	J	Pt.	I	B	G
1. Rouen	13	21	9	2	2
2. Caen	12	16	8	0	4
3. Angers	12	15	7	0	4
4. Reims	11	13	6	0	5
5. Hormadi	12	12	5	1	6
6. Chamonix	13	12	6	0	7
7. Amiens	12	12	6	0	6
8. Lyon	13	8	4	0	9
9. Viry	12	4	2	0	10

Ostirlean eta larunbatean Milanen kontra, La Barren

■ **AGERIAN** geratu zen Hormadi Lyon baino gehiago zela, baina angelutarrek ez zuten maila honetan eskatzen den profesionaltasuna erakutsi, eta huts bat egin ondoren hori zuzendu beharrean, beste hiruzpalau egin zituzten. Hor egon zen porrotaren gakoa, eta horrekin bat zetorren Gordobil.

Stanislas Solaux da Hormadiko golegile nagusia, eta berak ere ez zuen ulertzen gertatutakoa: «Nahiko erraz ari ginen jokatzeko, baina gero ez dakit zer gertatu zaigun». Hala ere, etorkizunari begira jarri behar da; ostirlean eta larunbatean Milanen kontra jokatuko dute. Bi partidak La Barren izango dira.



KOLDO ALDUNTZIN

Stanislas Solaux.

«Bistan da, azkeneko hiru partidak ahaztu egin behar ditugula azkar, pazientzia hartu eta gogor lan egin, bestela gaizki ibiliko gara», zioen Solauxek.

Solauxek Frantziarekin jokatu zuen Italiaren kontra joan den igandean, eta Milanez mintzatu zitzaigun: «Jokalaria sutsuak ditu, eta gogorra izango

da. Milanek ez du internazionalik, selekzioan ari direnak kanadiarrak dira, eta nazionalitate bikoitza dute. Suitza eta Alemaniako ligetan ari dira.

Milanen kontrako partidak ez dira liga-koak, «baina Hormadin jokatu nahi duenak, haietan ere gogoia erakutsi beharko du», zioen Gordobilek.

Saskibaloia ♦

Portland irabazle Miamin, Pippenek ondo gidatuta

Lehia estua izan zuten azken laurdena arte NBAko bi talde sasoikoenek

Agentziak / **New York**

SCOTTIE PIPPEN-EK orain arteko partidurik onena egin zuen Portland Trail Blazersekin, eta Miami Heat-entzat 96-101 irabazi zuten NBAko Mendebaldeko Konferentziako liderrek. Pippen izan zen Portlanden garaipenerako giltza: 20 puntu, 13 errebote eta bost asistentzia lortu zituen, eta hiruko erabakigarria sartu zuen 2.37ren faltan.

Aurreneko hiru laurdenetan oso lehia estua izan zen, eta Alonzo Mourning pibota nabarmendu zen Miamiren jokoa (23 puntu). Azken laurdenean, baina, behera egin zuten, bai Miamik eta baita Mourningek berak ere.

Pippenek esan zuenez, partiduko gakoa Miamiri aldea hartzen ez uztea izan zen: «Bisitari zarenean, markagailua estutu eta defentsa ona egitea da irabazteko bidea. Guretzat beste partidu bat baino ez da izan. Garrantzitsua da garaipena, baina ez dugu pentsatu hau NBAko finalaren aurrerapena zenik».

San Antonio Spurs txapeldunak, berriz, asko kostata irabazi zion Indiana Pacersi (90-87), Jerome Kersey eskoltak azken segundotetan lortu zuen saskiratze batekin. David Robinson eta Tim Duncan ondo aritu ziren aspaldiko partez: 22na puntu sartu zituzte *dorre bikiek*.

New York Knicksek, berriz, azken hiru jardunaldietako bolada txarra eten du, Denver Nuggetsen kantxan 95-102 irabazita. Latrell Sprewell hegalekoa izan zen saskiratzaile onena New Yorken (26 puntu), eta Allan Houston ere ondo aritu zen (23).

Beste emaitzak: Toronto 89, Detroit 85; Atlanta 103, Charlotte 98; Milwaukee 101, Clippers 93; Washington 73, Philadelphia 95; Dallas 114, Houston 95; Golden State 99, Chicago 79; Sacramento 81, Vancouver 77.